



Arartekoaren ebazpena, 2011ko abenduaren 19ko ebazpena, pasabidearen tasa udal erroldan baja emateko eskaera dela-eta Durangoko Udalak erantzunik ez emateari buruzkoa.

Aurrekeriak

1. Kexagileak desadostasuna agertu du 2009ko urrian pasabidearen tasaren erroldan baja emateko eginiko eskaerari Durangoko Udalak ez diolako erantzunik eman.

Ukituriko herritarra (...) kaleko garaje itxi txiki baten titularra da, eta zuzenean errepideko galtzadatik egiten da garajerako sarrera eta irteera eta, beraz, ez da beharrezkoa espaloirik ez oinezkoen eremurik zeharkatzea. Horregatik, pasabidearen tasaren erroldan baja emateko eskatu zuen. Hala ere, Durangoko Udalak ez du eskaerari buruzko berriazko ebazpenik eman, eta tasaren ordainketa eskatzen jarraitzen du.

2. Kexa izapidera onartu ondoren, 2010eko uztailaren 12ko idazkiaren bidez, gaiari buruzko informazioa eskatu genion Durangoko Udalari eta, nolahi ere, kexagileak kexan aurkezturiko eskaeraren gaineko berriazko ebazpena eman zezala.
3. Gure eskaerari erantzunik eman ez zitzaionez gero, errekerimendua igorri genuen 2010eko irailaren 20an eta, geroago, hainbat gestio egin genuen telefono bidez nahiz posta elektronikoz, baina ez dugu inolako emaitzarik lortu.

Egoera hori ikusita, ebazpena emateko gure parametroekin bat etorri eta eskuetan dugun informazioarekin, honako hauek helarazi behar dizkizugu:

Gogoetak

1. Abiapuntu gisa, ezinbestean gogoratu behar dugu herri administrazioek nahitaez eta berriaz eman behar diela erantzuna interesatuek eginiko eskaera guztiei. Administrazioak izapide egokia eman behar die herritarrek aurkezturiko idazki guztiei, bizkor eta eraginkortasunez, harik eta behin betiko ebazpena eman arte edo espedientea bukatu arte.





Arartekoak askotan salatu du zein kaltegarria den administrazioaren isiltasuna, babesik gabe uzten dituelako herritarrak, zeren eta ez baitute administrazioak haien asmoari buruz zer egin nahi duen eta horrek galarazi egiten baitie erantzunaren balizko edozein berrikuspen.

Herritarren erreklamazioei administrazio erantzunik ez ematea administrazioaren funtzionamendu anormala da, eta halaxe dela agerrarazi behar du Arartekoa erakundeak.

Espainiako Konstituzioaren ondoriozko da (103.1 eta 105. artikulua) prozedurako izapideak eta erantzun eraginkorra emateko izapideak izateko bermea, herritarrek administrazio ona izateko duten eskubideari dagokiona; izan ere, eskubide hori ageri da Europarako Konstituzioa ezarri duen Itunak sartutako Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Kartaren 41. artikuluan.

Baina administrazio txarra da artikuluko horien ondoriozko bizkortasunaz jarduteko betebeharra ez betetzea, eta Administrazioaren jarduketa eraentzen duten printzipio orokorrak urratzen ditu. Legez hala aginduta, herritarren zerbitzura egon behar du Administrazioak (Herri Administrazioen Araubide Juridikoari buruzko azaroaren 26ko 36/1992 Legearen 3.2. artikulua).

4/1999 Legearen zioen azalpenean aitortzen denez *"silencio administrativo es una patología del procedimiento ajena al correcto funcionamiento de las administraciones"* y que *"esa situación de falta de respuesta por la administración, siempre indeseable, nunca puede causar perjuicios innecesarios al ciudadano"*.

Hala, arlo honetako xede nagusia da -30/1992 Legearena nahiz 4/1999 Legearena – herritarrek Administrazioaren berariazko erantzuna lortzea eta, ahal dela, ezarritako epearen barruan lor dezaten. Horretarako, besteak beste, herri administrazioek berariazko ebazpena eman beharra xedatzeko neurria ezarri da.

Horri dagokionez, gogoratu behar da denboraren joan-etorriak ez duela desagerrarazten Administrazioak berariazko erantzuna nahitaez eman beharra.

2. Era berean, Durangoko Udalak Arartekoa erakundearekin izan duen laguntasunik eza salatu behar dugu. Arartekoa erakunde sortu eta arautu duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 23. artikuluan ezarrita dagoenez, eskatzen zaizkien datu, agiri, txosten edo azalpen guztiak eman behar dituzte EAEko herri administrazioek, lehentasunez eta premiaz. Ebazpen honen aurrekoetan adierazi denez, Durangoko Udalak ez dio jaramonik egin erakunde honen eskaerari eta, beraz, ez ditu bete Arartekoarekin dituen lege betebeharrak.





3. Kexaren mamiari dagokionez, Durangoko Udalak onetsitako *Udal-jabetza publikoa okupatzeko tasak arautzeko ordenantza* delakoan ezarritakoek izan behar dute abiapuntua. Zehazkiago, *ibilgailuak finketan sartzeari eta ibilgailuak herri bidean aparkatzeko erreserbari* buruzko 1) epigrafea.

1. idatz-zatian egitate ezargarria zedarritu du, eta hauxe dio: *“Egitate ezargarria da: Udal jabari publikoaren aprobetxamendu berezia ibilgailuak espaloitik zehar sartzeko eta aparkalekua gordetzeko.”*

Sarrera herri bidetik duen garajea eta espaloia daudenean sortzen da egitate ezargarria pasabidearen tasan. Horri dagokionez, Auzitegi Gorenak, 2007ko abenduaren 19ko epaian, lege doktrina hau ezarri zuen: *“el derecho de vado o entrada de vehículos a través de las aceras u orillas de la calle con independencia de que estén pavimentadas al mismo o distinto nivel de cota de la calle constituye un aprovechamiento común especial de un bien de dominio público local con base en lo dispuesto en los artículos 20.3.h) del Real Decreto Legislativo 2/2004 en concordancia con el artículo 75.1.b) del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales”*. [AGE (Administrazioarekiko Auzietarako Sala, 2. atala), 2007ko abenduaren 19koa. Lege Intereseko Kasazio Errekurtsoa, RJ\2008\1733]

Hauxe zehaztu zuen auzitegi gorenak epaian: *“el precepto antes transcrito sólo exige para la exigencia del tributo que se produzca la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público, en concreto en las entradas de vehículos a través de las aceras, sin distinguir que tales aceras estén o no elevadas sobre el nivel de la calzada, factor de mero detalle arquitectónico o de ornato de la calle, que no puede determinar que se imponga o no la tasa”*.

Hauxe da kexagilearen asmoaren oinarria: kaleko zati horretan ez dagoela ez espaloirik, ez oinezkoen eremurik. Hori dela-eta, ez du oinezkoak ibiltzeko gunerik okupatu behar bere ibilgailuaren garajea sartzeko. Hots, errepideko galtzadatik garaje barrura zuzenean sartzen dela dio. Hori ez du Durangoko Udalak ez baieztatu ez ukatu. Izan ere, orain arte ez du eman herritar baten eskaerari buruzko ebazpenik, besterik gabe, ezta Arartekoak aurkezturiko informazio-eskaerari buruzkorik ere.

Hauxe da espaloia: *“errepideko eremu longitudinala, oinezkoak ibiltzeko, galtzada baino garaiagoa edo baxuagoa dena”* (Motordun Ibilgailuen eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onetsi duen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren I. eranskina, 56).

Galtzada, berriz, honi deritzo: *“ibilgailuen zirkulaziorako errepideko zatiari”*. *Errei kopuru jakin bat dauka*” (Aipaturiko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren I. eranskina, 55).

Plantea liteke tasaren kobrantzaren oinarria izatea aparkamendu erreserba edukitzea. Aplikatu beharreko tarifetan dago gai honen inguruko ordenantzan



aurkitu dugun zehaztapen bakarra. Hauxe ezarri da ordenantzaren 4. idatz-zatian: *"Aparkamendu erresebak, metro linealeko edo zatiko (taxiak eta antzekoak)"*. Ordenantzan hitzez hitz ezarritakoaren arabera, arlo horrek ez du zerikusirik kebaren ustezko xedearekin.

Horregatik, herri bideko zati horretan espaloirik ez dagoela baieztatzen bada, egitate ezargarria gertatu ez dela ondorioztatu beharko genuke eta, beraz, ez da bidezkoa tasa ordainaraztea.

Behin eta berriz esana dugunez, horiek guztiak ez ditu argitu tokiko erakundeak.

Erreklamazioaren xedea eta aurreko ataletan adierazitako oharbideak ikusita, ondoko hauek helarazi behar dizkizuegu:

Ondorioak

1. Azaldutako oharbideak direla-eta, ondorio hau atera behar dugu: Durangoko Udalak, lege aginduz, kezagileak kexan aurkezturiko eskaerari erantzun arrazoitua eman behar dio nahitaez.
2. Halaber, Durangoko Udalak Arartekoa erakundearekin izan duen laguntzarik eza salatu behar dugu, zeren eta galarazi egin baitu Euskadiko herri administrazioen legez kontrako edo bidegabeko ekintzak zuzentzen saiatzeko gure lanean aurrera egitea.
3. Azkenik, berriz ere esan behar dugu udalaren laguntzarik ezak behartu egiten gaituela ondorioen idazki honekin gure jarduketa amaitutzat ematera, nahiz eta ukituriko herritarrak planteaturiko kexari erantzun arrazoitua emateko modurik ez izan. Alabaina, ebazpen honetan planteaturiko hipotesiak berresten badira, horren arabera jokatu beharko luke Durangoko Udalak eta tasa ez ordainarazi.

